

2016ko Azaroaren 25

Gure esku dago genero indarkeriaren aurka borrokatzea.
Ezin dugu pentsatu besteak baino gehiago garelara.
Ezin dugu gure bikotea matxakatu.
Ezin diogu inori ezer debekatu,
ez garelako inoren jabe.

Genero indarkeriaren bitartez hainbat biktima hil dira, baina sufrimendua, tratu txarrak, abusua, zigorrak, kontrola, burlak, presioa, desberdintasuna, oihuak, mitoak esatea, “*ni onena naiz*”, “*ezin duzu hori egin*”, “*ez duzu ezer balio*”... guzti hau ere genero indarkeria da.

Gehienetan gure bikotearen eskuetan gertatzen dira.
Baina, ez dago errespetu gabeko maitasunik.
Gu geuk geure burua aintzat hartu eta zaindu egin behar dugu.
Maitasunak ez du minik egiten, ez ditu izaera erasotzaileak aldatzen,
ez ditu harreman txarrak hobetzen,
ez du arazoa aldatzen onartzen ez duen pertsonarengan.

Gizonezkoek errespetatu behar gaituzte, baina ez emakumeak garelako,
baizik eta pertsonak garelako.

Berdintasuna bilatzen dugu. Errespetua nahi dugu kaletik goazenean.
Ez dugu ezer gehiago eskatzen eta, benetan diozuet
guzti hau gure esku dagoela,
aldaketaren belaunaldia geu garelara.

Ez utzi indarkeria zure bizitzan sartzen.
Zeuk erabaki noiz, nola eta norekin izan harremanak, noizbehinkakoak
nahiz luzeagoak.
Ez dago maitasunik askatasunik gabe.